



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

15. Irakasle, bidelagun; presentzia eta bidelaguntza

Pedagogia Sistemikoaren oinarriak ezagutzeko eta lantzeko aukera izan duzuenok eta irakasle eta bidelagun funtzioan sakontzen eta indartzen jarraitu nahi duzuenoi begira osatu dugu honako ikastaro hau.

Mun-

du berri batean gaude gaur egun eta gure ikasleek testuinguru berriak bizi dituzte. Nola ari gara egokitzen hezitzaileok testuinguru berri horietara? Nolako bidelaguntza eskaintzen diegu gure ikasleei? Nola indartzen gara irakasleok ikasleei laguntzeko, hezteko eta irakaste-ko? Ikastaroaren helburua hezitzailearen presentzia eta konfiantza indartzen laguntzea da, honetarako baliabide aproposak eskainiz.



Iratxe Vazquez Ceciaga

Kontsultore Antzuolako Herri Eskolan. Zuzendari lanetan aritutakoa, Pedagogia Sistemikoan formatzailea da Euskal Herrian (Mexikoko CUDEC unibertsitatearekin elkarlanean).

Belen Ortueta

PTa, HHn eta DBHn ari da gaur egun Amurrioko Aresketa ikastolan. Pedagogia Sistemikoan diplomata.

Eman izena



Irakasleentzat, tutoreentzat, espezialistentzat, koordinatzaileentzat, aholkularientzat edota eskolako beste edozein funtzioetan dabilzaneentzat.



Parte-hartzaileen beharretara egokituz eta bizitako esperientzietatik abiatuz, egoera konketuak landuko dira eta Pedagogia Sistemikoan oinarritutako baliabideak modu praktikoa eskainiko dira.

LANDUKO DIREN GAIAK

- Mundu berria erronka berriak.
- Zein dira gaur egungo ikasleen beharrak?
- Zein dira nire beharrak irakasle eta bidelagun funtzioan?
- Zein baliabide ditut eta zein baliabide neureganatu ditzaket ikasleen beharretara egokitzeko?
- Irakaslearen lekua eta presentzia. Nola kokatu dagokigun lekuan gure funtzioa modu eraginkorrean eta osasungarrian gauzatu dezagun.